

Erronkari buruzko fitxa

ELIKA

Nola izan genezake eragina gizakiek kontsumitzekoak ez diren elikagai-soberakinen errebalorizazioan? Nola ahalbidetu genezake haien identifikazioa eta kategorizazioa, eta nola sortu horiek murrizteko edo balio ekonomikoa neurtzeko aukera emango diguten datuak?

Azpi-erronkak:

- Nola eman genezaieke balio ekonomikoa elikagai-hondakinei soberakinak sortzen dituzten eragileek haiek aprobetxatuta onura ekonomikoa izan dezaten?
- Nola alda genitzake ekoizpen-prozesuak zirkularitatean oinarrituta, elikagai-hondakinak murrizteko?
- Nola konekta genitzake elikaduraren balio-kateko soberakinak sortzen dituzten eragileak eta soberakin haiek gizakien kontsumoa ez den beste helburu baterako aprobetxatzen dituzten eragileak, elikagai hondakinak murrizteko?
- Nola sentzibiliza genezake soberakinen potentzial ekonomikoari buruz, berriz aprobetxa daitezten, horretarako, negozio-eredu edo jarduera ekonomiko berriak sustatuta?

Testuingurua:

Elika Euskadin elikadura seguruagoa, osasungarriagoa eta jasangarriagoa lortzeko ezagutza aditua ematen duen erakundea da. Horretarako, euskal elikadura-ekosistemako eragile guztien arteko lankidetzak ahalbidetzen du.

2018az geroztik, erakundearen elikaduraren balio-kate osoan hondakinak murrizteko estrategia argia duen programa bat ezarri zen. Estrategia horren barruan dago elikagai-hondakinen errebalorizazioa, giza elikadura ez den beste helburu baterako erabiltzeko. Erronkak strategiaren alde horretan jartzen du arreta eta ez beste zenbaitetan, hala nola sentzibilizazioan edo giza kontsumorako soberakinak berriz erabiltzean; izan ere, horiek dagoeneko lantzen ari dira.

Gaur egun, soberakinak sortzen dituzten eragileak ez dituzte haiek kuantifikatzen eta horrexegatik da, hain zuzen ere, garrantzitsua identifikatzea soberakinen jatorria, kopurua eta kokapena, diagnostikoa egin eta soberakinak erabil ditzaketen eragileak aurkitzeko.

Irtenbideak soberakinen kudeaketa enpresentzat arazo bihurtzen den unean jarri behar du arreta, min hori arindu behar du, eta elikagai-soberakinak identifikatu, neurtu, kategorizatu,

kokatu, periodikatu eta hierarkizatzeko gai izan behar du, berrerabiltzeko bideragarri izan daitezen eta horrekin onura ekonomikoa lor dadin.

Garrantzitsua da aintzat hartzea bete egin behar direla elikaduraren legeria eta xahuketaren aurkako etorkizuneko legea.

Helburuak:

Gutxienez helburu hauetakoren bat betetzen duten irtenbideak bilatzen ditugu:

- Elikagai-soberakinak identifikatu eta bistaratzea.
- Horren ezaugarrien ikuspegi osoa izatea, kategorizazioaren eskakizunen arabera.
- Soberakinen ikuspegi eguneratua izatea, aldizka, modu arin eta aktiboan.

Zeren bila gabilta?

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Soberakinak sortzen dituzten eta haiek erabil ditzaketen eragileen arteko elkarreragingarritasuna.
- Irtenbideak aintzat hartu behar du etorkizunean transakzio ekonomikoak egingo direla eragileen artean.

Prozesua eta data gakoak:

Erronkan parte hartzeko, eman izena esteka honetan. [oraindik jaso gabe].

- Honako hau da proposamenaren erantzuna jasotzeko azken eguna: 2024/05/02ko 23:59.
- Finalerdira iritsi diren startupen berri 2024/05/10ean emango da.
- Startup finalisten berri 2024/05/24an emango da.
- Startup irabazlearen berri 2024/06/13an emango da.

Hautaketa-prozesuak 3 fase ditu:

1. **1. fasea:** finalerdikora iritsi direnek aurkezpena egingo diote sozietateari. Hiru startup finalista hautatuko dira. 2024ko maiatzaren 16tik 24ra izango da.
2. **2. fasea:** sozietateak elkarrizketa-txanda egingo du finalistekin. 2024ko maiatzaren 27an izango da.
3. **3. fasea:** sozietateak azken bilera egingo du finalistekin piloturako startup irabazlea hautatzeko. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, azelerazio-programan zehar.

Zer eskuratzen duzu?

Startup finalistak (3)

- Bi eguneko govtech **azelerazio-programa**. 2024ko ekainaren 11n eta 12an izango da, Bilbon, aurrez aurre.

Startup irabazlea

- **Irtenbidearen aurkezpena Demo Day de BIND GovTech 2024an**, Bilbon, aurrez aurre.
- **Ordaindutako pilotua**, gehienez 15.000 euro. Irtenbide irabazlea ezartzeko pilotua 2024ko uztailan hasiko da eta 5 hilabeteko iraupena izango du.